

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure aholkularitzaren ateak, ingurumenaren babesarekin eta iraunkortasun printzipioekin bat datorren edozein enpresentzat irekiko ditugu. Hala ere, gure bezero potentzialak enpresa txikiak izango dira, izan ere, beraiek dira laguntza gehien behar dutenak. Hasiberriak diren enpresak eta zerotik hasten direnak ere gure zerbitzuen beharra izango dutel. Noski, garatuagoak dauden enpresei ere lagunduko diegu, adibidez: euritakoak saltzen dituen enpresei edo arropa saltzen duen penpresari.

Hasieran, Euskal Herriko mailan. Geroago, beste leku batzuetara garatzea espero dugu.

Gure aholkularitzak zerbitzuak eskainiko dizkie enpresa oso desberdinei, baina enpresa guztiek ingurumenaren ongizatearekin nolabaiteko konpromisoa izan dezaten saiatuko gara. Adibidez, emisio handiak dituen enpresa batek aholkua eskatzen badigu, ukatu egingo diogu. Emisioak murrizteko prozesua hasi beharko dute beraien kabuz gure zerbitzuak erabili ahal izateko. Jakina, gure aholkuak ematerakoan, aldezturik enpresa iraunkorrago bat izaten lagunduko dien ideiarekin bat izaten saiatuko gara. Haien ideiarik izan ezean, ezin izango diegu gure zerbitzuak eskainiko.